



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGP-K 4 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO EMANGO DITU METROAREN SEGURTASUNA, FIDAGARRITASUNA ETA EGONKORTASUNA HOBETZEKO OBRAK BURUTZEKO

- **Jarduketarik nabarmenen artean, hauek dira aipatzekoak: Ibarbengoa eta Larrabasterraren arteko trenbidea berritzea 2.194.794 euroko zenbatekoan, eta beste tornu bat eskuratzea Sopelako kotxe-tokietako gurpilak zuzendu optimizatzeko, 1.149.500 eurotan.**
- **BGPren Kontseilu Nagusia gaur goizean bildu da, eta onetsi du soberakinaren kontura egindako aurreko ekitaldiko bi maileguren aurretiazko amortizazioa burutzea, 7.857.142 eurotan eta 2.357.142 eurotan.**
- **Halaber, onartu egin da Urdulizko lurpeko eremuan ur-saneamendu eta -hornidura sarea hobetzeko finantzaketa egitea 579.211 eurotan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta tokiko udalaren arteko hitzarmenaren testuinguruan.**

Bilbon, 2017ko uztailaren 13an

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Kontseilu Nagusia gaur eguerdian bildu da Bilbon duen egoitzan, eta onetsi du guztira 4.115.756 euro baliatzea Metro Bilbaoko erabiltzaileen segurtasuna, fidagarritasuna eta egonkortasuna hobetzeko zenbait obra eta jarduketa burutze aldera. Zehazki, 2.194.794 euro inbertituko dira 1. lineako Ibarbengoa eta Larrabasterra geltokien arteko tartearen trenbide-plataforma berritzeko; 1.149.500 euro Sopelako kotxe-tokietako instalazioen unitateetako gurpilen profila zuzendu eta optimizatuko dituen tornu berria erosteko; 428.642 euro Etxebarriko *bretelle* delakoa berritzeko, 1. lineak eta 2. lineak partekatzen duten tartean noranzkoa aldatzea ahalbidetzen duena; eta 342.820 euro Lutxana azpiestazioko estalkia aldatzeko, hondaturik baitago.

Urduliz eta Larrabasterra metroko geltokien arteko trenbide-plataformaren tartea berritu eta Urduliz-Plentziakoa hobetu ostean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak Larrabasterra geltokitik Ibarbengoara joateko lanei ekingo die. Obren aurrekontua 2.194.794 eurokoa izango da eta 17 hileko egikaritze-epea izango dute. Hau hartuko dute barne: trenbidearen plataforma berritzea (horrek balastoa edo harria aldatzea dakar), egoera txarrean dauden trabesak nahiz erreia berritzea, eta oinarri-azpia murriztea galiboa nahikoa ez denean. Halaber, bai plataformaren drainatzea, bai trenbideko ekipoen kokapena hobetuko dira. Hobekuntza horrek trenbidearen sestra jaiste eta bide-trazadura hobetzea hartuko du barne, betiere trenaren segurtasuna mantenduz eta bidaiarien erosotasuna areagotuz. Ez da horren jarduketa garrantzitsurik egin Metro



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Bilbao abian jarri zenetik, 1995. urtean.

Sopelako kotxe-tokiek izango duten tornu berriari esker tren-unitateen gurpilaren profilak duen profilaketa optimizatuko da. Egun dagoena andeaturik dago jada; horren ondorioz, eragiketa guztiak Arizeko kotxe-tokien instalazioetan dauden bestera desbideratu behar izan ziren. Makina horrek, 1.149.500 euroko aurrekontuarekin, *software*-aren bidez, unitate guztien gurpilak profilatuko ditu eta bibrazioak zuzenduko ditu. Gauzak horrela, bidaien erosotasuna zein segurtasuna handituko dira, baita tren-unitateen mantentze-lanak optimizatu ere.

Izan ere, trenbideko makinak eta gailuak, etengabe erabiliz gero, higatu eta hondatu egiten dira; horrenbestez, beharrezkoa da horiek aldatzea. Hori gertatzen da ere Etxebarriko *bretelle*-arekin, hots, 1. lineak eta 2. lineak partekatzen duten tartean noranzkoa aldatzea ahalbidetzen duen erraiarekin. Hori dela eta, Bizkaiko Garraio Partzuergoak berritu egingo du, 428.642 euroko zenbatekoan eta zazpi hileko egikaritze-pean. Lanen helburu nagusia hauxe izango da: erreia, lotzeko sistema eta trabesak aldatzea.

Nabarmendutako jarduketa horien guztien testuinguruan, azkenik 342.820 euro erabiliko dira Lutxana azpiestazioan beste estalki bat eraikitzeko. Azpiestazioa Eusko Trenbideen antzinako lineako eraikin batean kokatuta dago; haren teilatua narriatuta zegoen eta metroak behar bezala funtzionatzeko funtsezkoa den elementuetako bat estaltzen du.

Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak onetsi egin du soberakinaren kontura egindako aurreko ekitaldiko bi maileguren aurretiazko amortizazioa gauzatzea, 7.857.142 eurotan eta 2.357.142 eurotan. BGPren asmo nagusietako bat ahalik gehien amortizatzea da, eta bi mailegu horiek zigorrik gabe aurretiaz ezeztatu daitezkeen artean interes-tasarik altuena dute. Deuseztatze horri esker, hobetu egingo da batez besteko zorraren kostua, baita dagozkien interesak ez ordaintzetik sortutako aurrezkiena ere. Bi maileguak 2012. urtean egin ziren.

Azkenik, BGPko Kontseilu Nagusiak bi lankidetzaren hitzarmen desberdin onetsi ditu. Lehenengoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren, Urdulizko Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko lankidetzaren emaitza da. Horren helburua ur-saneamendu eta -hornidura sarea hobetzea da, udalerrira zeharkatzen duen metroaren zatia lurperatzeko obren ostean. BGPri dagokion finantzaketa 579.211 eurokoa da, eta jarduketaren guztizko zenbatekoa 1.544.564 eurokoa da.

Onetsitako bigarren lankidetzaren hitzarmena BBC txartel turistikoa Bilbao Bizkaia Card txartelean ezartzeari buruzkoa da, txartel hori atxikitako garraiobideetan erabiltzeko eta adierazitako txartel turistikoa Bizkaibusen lineetan erabil dadin; hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. Era berean, BGPren eta Bilbao Ekintza erakunde publikoaren arteko harremanak arautzen dituen kontratua ezarriko da, BBC txartelari eta horren baitan dagoen BBC txartel turistikoari buruzkoa.